

bidegileak




Frantzisko Torres Ibañez Aita *Felipe Murietakoa* (1897-1966)

Egilea:

JOSE MARI SATRUSTEGI

Bizitzako urratsak

Gutxitan argazki batek aita Felipe Murietakoaaren irudiak duen indarrarekin agertu ohi du pertsonaren nortasun sakona. Kaputxinoaren ohiko bizar zuria, arretaz apaindua, bular gaineraino jaitsia; begirada zorrotz eta gardena betaurreko biribilduen gainetik amestetan iheska galdua, eta euskaldun txapela –ez handi eta ez txiki, neurrikoa baizik– ongi zeharkatuta bere pentsabidearen ezaugarri euskalduna. Hori da munduak ezagutu zuen aita Murietaren irudi azalez gogorra, eta benetako frantziskotar apalaren estalkia.



Frantzisko Torres Ibañez
Aita Felipe Murietakoa (1897-1966)

Nafarroako Estellerrian jaio zen, gero fraidetan izenordetzat hartuko zuen Murieta herrian, 1897ko urriaren hiruan. Biharamunean, Asisko Frantzisko santuaren festa seinale, bataiatu zuten herriko parrokian eta, ohi zenez, eguneko santuaren izena jarri zioten, gero frantziskotarren anaidian aldatu zuena. Pako izan zen halere, beti, sendikoentzat.



Murieta herriak 400 biztanle zituen Torres jaio zenean, orain 300 eskas

Bere aita Joan Torres Elizondo, Lizarrako semea, sendagileorde zirujaua zen. Kristau elizkoia, egunero entzuten zuen meza eta arrosarioa errezatzen etxean. Garizumako baraua zorrotz eraman ohi zuen, eta aipatua zen inguru guztian gaixo eta behartsuengana-ko bere ardura. Iturgoien Gesalazkoa zen Gedeona Ibañez Arrechea ama. Sei seme-alaba izan zituen bikoteak.

Pakok bost urte zituela Lizarrara aldatu zen familia eta, gaixoaldi batean, hiltzeko zorian egon zen mutikoa. Ega ibaiko eskolapioetan egin zituen lehen ikasketak. Laster hil zitzairen

aita eta Iruñera joan ziren bizitzera, adiskide onak baitzituen hiriburuan amak hain beharrezkoa zuen babesaren lortzeko. Hiriburuko eskolapioen ikastetxean jarraitu zuen gazteak ikasten.

Hamabi urte zituela kaputxinoetan sartzea erabaki zuen eta 1909ko udapartean Altsa-suko komentura eraman zuen amak. Bost ikasturte han igaro ondoren, Zangozan hartu zuen ordenako abitua 1914an. Handik aurrera, Hondarribia, Lizarra eta Iruñean egin zituen filosofia eta teologia estudioak, eta 1922ko apirilaren 15ean apaiztu zen, aurre-



San Esteban parrokia XIII mendekoa da,
barroko garaian eraberritua



Erdi Aroko dorre sendoaren gainean XIX mendeko
kanpai neoklasikoak ezarri zitzaizkion

rantzean Felipe Murietakoa bezala ezagutua izango zen fraide euskaltzalea. Argentinara bidali zuten nagusiek 1925ean. Hamaika urtez egon zen O´ Higgins, Kordoba eta Nueva Pompeyako Andre Mariren santutegi ospetsuan, bai irakaskintzan eta bai musikari ofizioan, organo jotzaile bikaina baitzen. Elizkizun ospetsuak egiten ziren azken toki honetan bazter guztietatik etorritako jendetza handiekin, non garrantzi berezia ematen zitzaion musikari.

Bi akats nagusik markatu zuten aita Murieta-
ren bizi osoa: osasun eskasak eta Espainiako gerrak. Bronkioetatik eri, arnasestualdi latzak



Murietako ponte honetan bataiatu zuten Frantzisko

jasan ohi zituen, eta gorputzeko arazoak aski ez zirela, 1936ko gerrak bete-betean harrapatu zuen, bere pentsabide eta sentimenduak ezagututa egoerak zekartzan ondore guztiekin.

Hamaika urteren buruan gaixotasunak jota itzuli behar izan zuen elizgizon nafarrak Argentinatik, eta kaputxinoek Teruelgo Hajar herrian zuten komentura bidali zuten 1936an, ez haatik epe luzerako, uztailaren 18ko gertakizunetan komentua erre baitzieten ezkertiarrek. Gaizki ibili ziren fraideak handik bizirik irteteko, argitaratu ez diren paperetan Murietak dioenez, baina lortu zuen, nola edo hala, Tuterako komentura iristea.



Aitortegi horretan egin zuen lehen Jaunartzerako aitortza

Ez zen euskaltzalearentzat egoera hobe eskuintarren alderdian aurkitu zuena eta orduan hasi zen beretzat hiru urteko joan-etorrien kalbario bidea. Uztailaren 31n Lekarozen zegoen, non harrera on eta karitatezko abegorri anaikorra izan zuela, idatzi

baitzuen. Hortik aurrera, Espainiako hiri desberdinetan ibili zen, hala nola, Salamanka, Vigo, Sevilla edo Granadan, besteak beste. Gerra amaitzean Nafarrora itzuli eta bertan geratu zen, gehienbat Altsasun eta Iruñeko San Antonio komentuan.

Jainkoaren eskutik atera bezalako gizona, deitu zuen adiskide batek, maleziatu gabea alegia, hain baitzen zintzoa bere jarrera. Espanturik gabeko pertsona, isilean egiten zituen gauzak eta ez zuen inorengatik gaizki hitz egiten, bazuelarik bizian batzuez eta beste esatekorik franko. Inori lanik ez ematea



Aita Murieta, gaztetan

amesten zuen beti. Bere buruaz, ez alde eta ez aurka, ez zen inoiz mintzatzen.

Antzera jokatu zuen azken gaixotasun gogor-rean: «egunen batean laguntza eskatzen badi-zut oso gaizki nagoelako izango da», esan zion erizainari. Izan ere, ez zen inoiz eritasunaz mintzatzen ez fraideekin, ez eta adiskide bisitariekin. Gurutzea beretzat zeukan bakarrik.

Hil baino hilabete batzuk lehenago barnean zerman gogo kilikari bat betetzea lortu zuen: hurbileko norbaitek Aralarko santutegira eraman zuen. Urtez urte joan ohi zen festa buruetan, bereziki Gorputz Kristi, Solbezio eta iraileko Mikel Goiaingeruaren egunean aitortzak entzun eta meza nagusian harmoniuma jotzera. Azkenaldi honetan ere, betiko

zeinua egin zuen bertan: soinua jotzailearen aulkian eseri eta, hala-edo-hola hankekin hauspoak mugituz, nota batzuekin eman zion pozik azken agurra santuari.

Isilean bizi eta isilka hil nahi zuen berak. Hurbiltzen ari zen San Fermin festa bezperako zarata hasi aurretik pausatzea gura zuen, eta hala jakinarazi zion Ismael anaia apaizari, berak Jainkoari erregutzeko esanez; baina fraide zintzoak beti ezpainetan zuen umore oneko azken irritxoia festa giroan jaso nahi zuen zeruko Aitak eta, hala izan zen: eztarriko minbiziak jotako eritasun luzearen ondoren, 1966ko uztailaren 13an eraman zuen Berrekin, sanferminetako ospakizun alaiak amaitzean, hain zuzen ere.



Altsasuko komentuan hasi zen kaputxinotarako ikasten, 1909an

Idazlea

Hitzetan motz eta ekintzetan luze omen gara euskaldunok eta, esaerari amor emanez, ez zen geldirik egoteko gizona Murietako semea. Atsedenaldi gutxi eman zion bizian hainbeste amets ederren buru argiari. Egoera zailtan uste gabeko gertakizun larriei aurre egin behar izan zien, han-hemenka, eta eman-dako urratsen aztarnak utziz egin zuen bidea. Idatzitakoa idatzirik gelditu ohi dela-eta izkribuen hizkuntza arruntean bete zuen berak isiltasunak berez irentsitako berrien zuloa. Askok behartu gabe, gaztetatik zetorkion idazteko zaletasuna.

Desberdinak dira zirriborro harien edukiak. Argentinako urte gazteetan, adibidez, gazteriaz arduratu zen nagusien aginduz eta *Juventud* izeneko aldizkaria ateratzen zuen helburuen iragartzeko, eguneroko ekintzen bultzatzaile eta lankideen arteko lokarri. Bada hor muga gabeko asmo zabalen lekukotasunik.

Osasun-ezaz, Hajar Teruelgo komentukoa izan zen hurrengo txangoa. Hilabete gutxi egin zuen bertan, kronika luze eta arrisku handiko pasarteen berri emateko gaia izan bazuen ere. Iritsi bezain laster, 1936ko uztailaren 18an aztaletatik gertu bizitu zuen ezkertiar matxinatuen erasoa. Komentua erre eta ihes



Zangozan hartu zuen ordenako abitua, 1914an

egin behar izan zuten fraideek. Txikia izan arren anaidia, ez zuten denek bizirik ateratzetik izan. Aita Felipek naturalki idatzi zituen egunean eguneko pasadizoak. Giro beroan behar zen hoztasunez baina sentimendu handiz egin zuen izkribu horietan lagun minaren erailketak zekarkion gogoeta hunkigarria. Mondragoeko Egidio gazte euskalduna zen apaiztu aurrean eurekin zegoen taldekidea, eta izkribu hauen lekukotasuna da haren heriotzaz aurkitu den argibide bakarra.

«Goyan bego adiskide maitia», opa zion euskaraz idazle nafarrak. Arrasatearrari zordun sentitzen zen bera, anaien bizia salbatzeagatik eramán zuela-eta Jainkoak harena, zirriborroren amaieran dioenez.

Nola edo hala atera beharra zegoen handik eta beste lagunén ardura babeslea hartu zuen bere gain aita Felipek.

Lehen urte haietako da frantsesetik gaztelaniara itzuli eta Iruñean argitaratu zuen *María Luisa Aguerre* izeneko D.L. Bolher-en liburua.



Lekarozén harrera ona egin ziotén Murietari

Euskara berpizten

Euskara zen, halere, barne-barnean zermanan zaletasun berezia, eta herrimina zerien nagusiki haren idazlanei. Nondik zetorkion sua? Iturgoien Andimendi aldeko bere amak ba omen zekien euskaraz eta haren ezpainetatik jasotako *Apakia* hitza –sutondo hauts azpian gordetako ilintia alegia– hartu zuen izenordain, etxean galdutako euskararen sustrai bizia beregan berpizturik ikusita edo. Ez da ahaztu behar, bestalde, kaputxinoek arretaz zaintzen zutela gerra aurrean euskara, Euskal Herriarenganako atxikimendua gutxik bezala zainduz. 1922ko apirilaren 15ean apaiztu zen aita Murieta eta, gertatuak gertatu, 1936tik aurrera gure herriak –eta berak– nozitutako zigorrak su-burdin zigiluz bezala markatu zituen elizgizonaren sentimenduak. Eskoletan arbuaiatua zen euskara, zigortuak mintzo zuten haurrak eta gaizki ikusia gizartean euskaltzalea.

Hori dela-eta hesi estuan itotzen zihoan euskararen esparrua, gero eta gutxiago ziren herri euskaldunak eta jendeak galdua zuen bere hizkuntzaren estimua. Hilobiratzen ari zen babes gabeko nortasuna zegoen arriskuan. Kinka gorri horren ikuspegitik bakarrik uler daiteke gaur egun aita Feliperen garaiko euskaltzale borrokalarien merezimendua. Baikorra izan behar zen benetan, herri zapalduaren baitan itxaropena jarri eta gau beltzaren ondoren argisentia zetorkeela sinesteko.

Euskararen etorkizuna beltz ikusten zuen, galdetu zion 1964an argitaratutako elkarrizketa batean kazetariak aita Murietari. «Beltz ikusiko banu ez nuke horretan lanik hartuko, erantzun zion berak. Ni itxaropentsua naiz, baina nire aldetik ikusten dudana, hau da: aurea edertzen aritzea baino askozaz ere beharragoa da zimenduak sendotzea etxea eror-zorian baitaukagu.»



«Apakia, sutondoko hauts azpian gordetako ilintia»

Bere filosofiaren ardatza horretan datza. Ez zen itxurakerien aldeko pertsona eta ez zuen bere izena aintzat hartzerik nahi. Zarata handiko ekintza ikusgarriak ez baino, lan isila maite zuen eta herri apalari hurbiletik iristeko eskaintza xumeak bultzatzen zituen. Haren-



Iurrita, Leitza eta Etxarrin jokatu ziren kanporaketak, 1961ean



Murietak euskararen alde egin zuen lanaren eta heriotzaren berri



Euskal aditzari buruzko lana



Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 1962an: Arozamena, Uizi, Aldaz, Ibarra, Narbarte, Ezkurdia, Perurena eta Madariaga

tzat oinarrizko helburua gure jendeak euskara ikasi eta mintzatzea zen. Horretarako ezin bestekoa zitzaien prestigioa berreskuratu eta geure ondareaganako estimua lortzea.

Euskara ikasteko testu errazak prestatzen hasi zen gerra ostean. Euskaldun berria zen bera eta esperientziaz bazekien zein ziren zailtasun nagusiak. Helburua, beraz, ikasgai arruntetatik abiatu eta aldian aldiko lorpenak elkarren artean baliatzen hastea izango zen. Gramatikari ikasien liburuak ez baino, baliagarritasunaren ikuspegitik bizitzan txertatutako izkribuak dira bereak. Azal eder eta itxura oneko liburu garestirik ez zuen nahi.

Honako hauek dira aita Felipe Murietakoak burutu zituen ikasliburuak. Esan behar da idazmakina jo zituela baina ez zirela inoiz argitaratu.

Gramatika elemental vascuence. Sail honetako izkribu guztiak erdaraz idatzi zituen, noski, ikasle erdalduna euskararen mundura hurbiltzen saiatzeko. Lehen mailako ikasgai errazak dakartza hasieran, ikasia pitinka-pitinka erabiltzen joateko ariketekin. Herritik hurbil zegoen berak mintzo zuen euskara eta horrelakoa da proposatzen duen hizkera.

El verbo vasco en su forma impersonal. Aditza dela euskara ikasi nahi dutenentzat oztopo nagusia eta askorentzat, etsita, atzera egiteko aitzakia, dio sarreran. Hori gainditzeko laguntzeko gauzatu zuen oinarrizko ikaskizun hau bere esperientziaz baliatuta. Aditz laguntzailearen forma nagusiak eskaintzen ditu iragan-

kor nahiz iragangaitzaren taula biek. Hitz-joko errazen bidez ikaslea lehen ikasgaitik mintzatzen hasteko moduan eginga da. Aditzaren forma ohikoenak lehen hiru orrialdeetan datoz, eta aditz-joko horiei dagozkien ariketek osatzen dute gainerako ikasgaia.

Herriak askotan erabili ohi duen bide hau lehen urratsak ematen hasteko egokia deritzo. Azalean ipinitako ohar baten arabera: «dena lortu ezina, ez da ezer ez egiteko arrazoia».

Ejercicios prácticos sobre el verbo euskérico. Hogeita sei ikasgai ditu lanak eta, funtsean, aurreko aditz-ariketen jarraipen aberastua da, baina gramatikaren ikuspegitik sailkatuta. Adibidez zenbait atzizki, denbora edo lekuko adierazle eta lokarri batzuen funtzioa gaitzat hartuta eginak dira zenbait ariketa, eta aditzaren inguruan beste batzuk.

Diccionario fraseológico. Euskaldun berrientzat egindako bilduma dela dio eskuz idatzitako ohar batek aurreko azalean. Lehenbiziko orrian lanaren izena aldatzen du, *Pequeño Vocabulario erdera-euskera* dioelarik idazmakina izkribuz. Bostehunen bat hitzen joskera eta adiera desberdinak alfabetoz lerrokaturatuta biltzen dituen hiztegi hau euskal ikasleen laguntzarako dela aditzera ematen du. Beste lanetan ez bezala, «EGA´ldeko batek idatzia», dio sinadurak, 1956ko datarekin.

Elkarren osagarri dira lau lanak eta hiztegia dateke azkena.

Umeen deia

Euskararen alde aita Murietak bultzatutako ekintza emankor eta baliotsuena *Umeen Deia* izeneko bilduma bitxia bideratu eta hil arte mantendu izana da. Ez zen ohiko zerbait: lau orrialdeko papera ilun arrunta ehunka idazle txikiren partaidetza freskoarekin bi zutabe estutan inprimatua. Gerra osteko euskararen basamortu lehorrean uste gabeko ur gardenen iturritxoak zerion aita Feliperen baratzetxoari. Haur euskaldunek bidalitako lantxoekin umeentzat irakurgaiak lortzeko asmoa, halere, aingerukeria edo antzeko zerbait zeritzon jende askori, eta irriño



Umeen Deia aldizkariaren azala

batekin erantzun zioten gehienek bizar zurien fraideari.

Zuzenean jaurtitako eztenen modura sartzen ziren deialdien mezuak: «Haurrak, –zioen batek– zergatik egon behar duzue beti isilik? Noizbait hitz egin behar duzue haundiek bezala. Nahi dugu jakin zuen herrietako berri. Bidali lanak zuek berberak idatziak eta firmatuak, esanez gainera zenbat urte duzuen».



Umeen Deia barrutik



Pedro Diez de Ulzurrun sendagilea laguntzaile handia izan zuen Aita Murietak

Eginkizun berriaren originaltasuna ulertzeko esan behar da, pare bat urte lehenago, 1957an, 'Euskararen Aldeko Saila' hasia zela, Nafarroako Diputazioaren izenean, haur euskaldun guztiei herriz herri sariak banatzen. Kate luzeagoaren eraztun gehitua zen, beraz, mintzo zuten hizkuntzan zerbait idazten has-teko bultzadatzkoa.

Ahal genuen neurrian joan ohi ginen euskaltzaleok umeen festa horietara eta, halako batean, 1959ko maiatzaren 17an Etxalekutik itzultzean bururatu zitzaion aita Murietari idazle txikien harrobia lantzen hasteko ideia, eta estreinakoz Pedro Diez de Ulzurrun bide-

-lagun sendagileari esan zion Iruñera iritsi zirenean.

Ez zen erronka makala une hartan zerbait argitaratzea, eta areago euskaraz, arau korapilatsuen gainbegirada zorrotza iragan behar baitzen gobernuko bulegoetan. Bi oztopo nagusi aurkitzen ziren bidean: legezko baime-na eta argialetxea.

Esanguratsua da, benetan, baimena eskatzeko egunean gertatua. Konfiantzako bost euskaltzalerekin hitzarturik zegoen agintariengana elkarrekin joateko. Ezin-etorria gaztigatu zion bezperatik batek eta, ordua iritsi zenean, ez zen beste inor agertu. Erlojuko ordubata bai-

no bakartiago ikusi zuenean bere burua eta botika batetik dei egin ondoren, beste Pedro Diez de Ulzurrun apaiza hurbildu zitzaion. Horrelako mezu batentzat elizgizon biren presentzia soila motza iruditu zitzaion, eta Diputazioko artxiboan egon ohi zen Ignazio Baleztena leitzarrarengana jo zuten biek laguntza eske. Hirukotea osatu ondoren ausartu ziren arduradunaren bulegora sartzen.

Bizar zurien aita kaputxinoak egindako aurkezpena asmo xalo baten kontua izan omen

zen, ia-ia hutsaren pareko zerbait: haurkeria alegia. Aldizkaria ez baino, orri soilak, epe zehatzik gabe hurrek egindako lanen arabera noizbehinka agertu beharrak ziren idazkitxoak; zenbakien kopurua, izenburu eta formalismo guztiak alde batera utzita, doan banatzeko papera solteak besterik ez. Horrela eskuratu zuen gizonak zuhurtziaren apaltasunez, NA. 295/1959 dioen legezko baimena.

Besterik zen argitaletxeen arazoa. Irabazirik ez zegoenez, alferrik zen ate joka inon denbo-



Murieta, babes handia eman zion Larrañaga kaputxino gotzain misiolariarekin

ra galtzen ibiltzea. Bazekien horren berri, izan ere, gelako arasetan zeuden hautsez beteta bazterturik ikasle helduentzat lehenago eginitako saioak. Lanari ekin zion berehala eta hila-betea baino lehen –1959ko ekainean– gertu zeukan estreinako zenbakia. *Editorial Apakia* deitu zuen umoretsu komentuko gela, non bera baitzen zuzendari eta proba zuzentzaile, gutunen egile eta erantzunen hartzaile, bulegari eta postari, morroi eta nagusi. Papera, inprimatze lana eta postako gastua, batzuk eta besteek emandako laguntzatxoekin ordaintzen zituen. Lehen orrialdean honako esatera hau zekarren izenburutzat, letra larriekin, bi lerrotan: *Aterako da ahal dugularik/ahalko dugu nahi dugularik*.

Agintarien hasierako baldintzak estuak izan arren, ibiliaz bidea egiten joan zen saio bitxia eta funtzionatu egin zuen hutsarterik gabe arduraduna hil arte. Izen ofizialik-ezak sortutako nortasun hutsunea saihebidetik konpondu zuen. Posta helbidea ezin bestekoa zuen zetozen lanak jaso, gutunak bidali eta bestelako hartu-emanak mantentzeko, eta Murieta apalak ez zuenez bere izena inon agertzerik nahi, haurren lanak jasotzeko jarria zuen posta helbidea –*Umeen Deia*. Carlos III, 22. Pamplona–argitalpenaren izenburu bihurtu zen 1961eko martxoan ateratako 23. zenbakitik aurrera. Artean plazaratutako aleek ere badute, noski, euren bereizgarri txikia: hiru lehenbizikoak izartxoekin doaz, laugarrenetik 15.era data daramate eta gerokoek alearen zenbakia.



Askotan joan ohi zen Aralarko San Migelera

Arrakasta itzela

Arrakasta itzela izan zuten orriek. Lehen urtean, adibidez, 350 bat lan agertu ziren. Idazlan asko metatzen hasi zitzaion, halako batean, eta lau edo bost aldiz, bikoiztu egin behar izan zituen hilabete bereko zenbakiak. Edukiari buruz hau zioen Jose Artetxe idazle donostiarrak: «Berriz ere esan bearra dago. Folkloristak, au da, erriyakintza zaleak, badutela nun arkitu errebista horretan».

Haurren euskaraganako zaletasuna piztu eta bultzatu nahia zen helburua, baina pertsona helduen eskua nabarmentzen da lan batzuetan. Hori moztu nahian, norbaitek bidalitako kexua txertatu zuen kolorezko orritxo berde solte baten bidez. Honela zioen: «Idazten digutena. Naparroako aurrek ondo egiten dute beren lana. Orri unen asmatzaileraren xedea ongi bete dute. Geienek erakutsi dauzkatelantxo arras polittak, dela kontu edo gertakari bitxiak, mamitsuak; baño bere baitarik idatziak eta naturalki, yostaketan bezela. Aldiz, beste alderdietako mutikoen lanez, ez dugu gauza bera esaten ahal; urrundik nabari da lan oketan sudurra sartu dutela zenbaitzuek mutikoetatik kanpo. Ori ala izanikan, galtzen dute asko eta asko mutikoen lana; ene ustez, ez da bide zuzena olakorik egitea. Mesedez, Zuzendari jauna, esaiozue ume guztieri idatz dezaten beren herri edo inguruetako kontu zarrak, gertaerak, berek dakiten bezela. Ala nola, egiten diren Eguberri, Urteberri, Iña-

uteri, Santa Agata eta abar. Elizan zeletzen direnak berriz, obe daude eliz aldizkarietan. Aur euskaldunen izketa nai dugu, eta ez aundienenak».

Pertsona helduen artean interes handia sortu zuten haurren lanek. Alde batetik, gurasoei sekulako ilusioa egiten zien euren umeen ize-nak paperean agertzeak, eta seme-alaben lantxoak zirela bide hasi zirela euskara irakurtzen, idatzi omen zioten zuzendariari guraso batzuek. Eskola askotan eta apaizen artean laguntzaile onik izan zuen, bestalde, uhinaren jarraipen emankor moduan; baina atzeritik zetozkion, batez ere, aita Felipek ongi baino hobeki haizatzen zituen goresmenak. Honela zioen Suediatik Nils M. Holmer hizkuntzalari handiak: «...illero *Umeen Deia* datorkit, eta pozten nau ikusteak zenbat maite duten euskal-aurrak beren hizkuntza, adineko batzuek baino askoz geiago, zoritxarrez. Eta, gainera, ederki idazten dute aur auek; egiaz arrigarria da beren jakinduria ipuin hain politak egiteko». Eta Suedian bertan Lund Unibertsitateko irakasle Vania Abrahamson andereak beste hau zioen, bizkaiera jatorrez: «Orain dela illebeste asko hartzen ari naz *Umeen Deia*’ren orritxuak. Atsegin andiagaz irakurten dodaz euskal-aurren idazlan ederrak. Nere iritxia onen ganean au da: Oso ondo egiñak dira; lan ona euskerarentzat egiten dabe aur onek, ipuñak oso politak diralako eta, gañera guentzat Euskalerritik kanpoan bizi garientzat ortiko goraintzi bazuk lez

etortzen yakuzalako. Au nere arritasun andia euskal aurtxuak alango gauz politak eskributea; orrek jakinduri zorrotza agertuten dau eta, nere txalo beroak berentzat».

Euskaldunzahar askori zarrasta egin zion barruan atzerriko maisuek euskaraz horrela idazten zutela ikusteak. Txekoslovakia-ko Norbert Tauer euskaltzalearen hitzetan, beste edozein aldizkari baino estimu handiagoan zeukan haur euskaldunen orria. Hara zer zioen berak hitzez hitz euskara ederrean: «Euskal artikulu jakingarriak ekartzen dituzten aldizkari ugariak zenbakitik zenbakira artzen ditut nere euskaldun adiskideei esker: baiñan, egia esateko, aldizkari oien guzien

artean atsegiñik aundienarekin irakurtzen dudana, *Umeen Deia* izenekoa da... Aldizkari onek, lau orrialde bakarrik dituenak, ez du artikulu aundirik ekartzen; bertan arkitzen den guzia beren biotz garbien erditik Euskara maite duten aurren lana da. 8-12 urte dituzten euskaldun aurrak, aldizkaritxoari bialtzen dizkioten kartatxoetan beren bizi-az, sendiaz, erriaz eta eskolaz itzegiten baita kontu eta ipui ederrak ere kontatzen dizkigute, idazkera tolesgabean, dena euskeraz».

Estellerriko kaputxino euskaltzalearen lanak atzerrian izandako oihartzun nabarmena, haurren alorra jorratzeagatik izan zen, bereziki, originala eta herrikoia baitzen saioa. Euskal kontzientzia akuilatze-ko tarteka-marteka sartu ohi zituen esaeren artean, honako hau dakar 1962an, erdaraz, denek ulertzeko: «Gehien irakurtzen den euskal aldizkaria. Munduaren bost partetan, gutxienez, irakurtzen da».



Norbert Tauer euskaltzaleak *Umeen Deia* beste edozein euskal aldizkari baino gehiago estimatzen zuen



1960an Lekunberrin. Kantatu aurreko bazkaria. Besteak beste, Alfons Irigoien, Angel Aldaz Ihabengo bertsolaria, Andres Narbarte eta Bautista Perurena, Karretto, baita Aita Felipe Murieta gaztetan ere

Eudeia

Zama handiegia zen pertsona bakarrarentzat aldizkariak sortzen zuena eta, eginkizunak banatzeko asmoz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zabalkundea Donostiatik bideratzea erabaki zuen 1963an. Hori dela-eta, orri berak testu berdinarekin, izen bi hartu zituen 45. zenbakitik aurrera: Iruñetik banatzen ziren aleek *Umeen Deia* ohiko izena zeramaten, eta Okendo kaleko komentutik bidaltzen zirenek *Eudeia*, 'Euskal Umeen Deia', izen berria hartu eta hutsetik hasi ziren bigarren bilduma kon-

tatzen. Hil aurrean zailtasunak ez zitzaizkion arindu aita Murietari, baina laguntzaileak lortu zituen Iruñean. *Eudeia* utzi, beraz, eta hasierako *Umeen Deia* izen bakarreko aldizkari-
ra itzultzea zen bere asmoa, gutun batean azaldu zidanez. Azken borondate hori, halere, ez zen inoiz gauzatu, haurren argitalpenak arautzen zituen Gobernuako lege berri bat atera baitzen, udazkenean, eta aita Murietak *U.D.* egoera berrira egokitzeke eskaria egin arren, ez zuen erantzun ofizialik jaso, eta bi izenburuak batera desagertu ziren 1965ean.



Eudeia

Sei urtez (1959-1965) plazaratutako 65 zenbakietan ia 1.500 izkribu sinatu zituzten 880 idazle txikik.

Argitalpenaren merezimendu nagusia, halere, ez da zenbaki kontua. Euskaraz idazteko eskola eta ohiturarik ez zegoenez, gogoia piztu zuen behintzat herri xumearengan. Haurren lanen artean txertatutako ohartxoek eragin baikorra zuten irakurlegoan. Lehenbiziko zenbakian, adibidez, hogeitaz izkributatik, bat izan ezik, denak mutikoenak ziren. Garrantzi handia du emakumeak ama-hizkuntzaren etorkizunean, eta honako zirtada hau zekarren hurrengo zenbakiak: «Mutikoen igorritako

lendabiziko lanak pollitak izan ziren; baño eken artean ez ginduen ikusi Almandoz´tar neskatikoa batena baizik. Zer! Etzerate neskatikoen gai mutikoen bezenbat jakiteko erritikoak, eta gero idatzi paperean lerro gutxitan? Nik uste baietz. Asi zaitezte bada oraitik lenean beldurrik gabe. Datorren urteko presatutako dugu “Concurso” bat saritzeko zuen lan pollitenak».

Ohar hori kontuan izanik, azpimarratzekoa da aldizkariaren lehen urteburuan eskuartekeo zirriborroetan idatzi zuena: haurren 350 lan baino gehiagotik, %45 neskatuenak dira.



Donostiako komentu honetatik banatzen zen *Eudeia*

Euskal kontuak

Gaixotasunak ez zion lanean jarraitzeko adorea kendu eta azken urtean hitzez esan ezin zuena paperaren bidez azaltzen zuen. Argitalpena lege berriari egokitzeko, aurretik egindakoa neurritz aldatu eta 16 orrialdeko eskuliburu txiki antzera antolatu zuen, ezin bestean, eta *Euskal Kontuak* izen zabala eman zion. Bigarren ipuin sorta 1966an inprentara eramatean itzali zen sortzaile eta arduradun kementsua. Hileta iragarkia zekarren egunkari eta orri berean zetorren, hala beharrez, hurbileko laguntzaile mina zuen Rafael Goñi apaiaren hilberria ere. Elkarri lagunduz



Gu batxiller euskaldunak, ikasle gazteen aldizkaria

bizi ondoren eskutik hartuta joan ziren bide-lagun biak beste mundura.

Jose Anjel Irigarai euskaltzale sutsuari utzi zion *Apakia* proiektua aurrera eramateko gomendioa, eta hurrengo zenbakia oroitzatza-

pen honekin hasten da: «Aita Felipe Murieta-koa, *Umeen-Deia* asmatu zuena, hil zaigu. Zuek haurrak, hilibetero *U.D*-an iskiria-tzen duzue-nek, ez omen duzue ezagutu gure Aita Kaputxinoa. Nik hitz bitan, gizon ona eta apala, eta euskaltzale porrokatua zela, errango dizuet. Beste gauzak baino gehiago, euske-
ra gure mintzaira, maite zuen. Eta horregatik hasi zen *Umeen Deia* egiten. Bere lagun ona eta bere obraren jarraikitzailea On Rafael Goñi, apaiz jauna bera, hil zaigu ere. Holakoe-tan otoitz bat eskatzen da, baina zuek euske-raz ongi iskiriatzen eta irakurtzen edo leitzen ikastea, otoitz hoberena izango litzakela, erra-ten dizuet. Hori Euskal Herria guzian erdies-ten delarik, orduan bai biak trankil eta pozik geldituko direla».

Lau ipuin sorta

Lau dira *Euskal kontuak* izenarekin plazaratu ziren ipuin sortak eta lan hoberenentzat ira-garritako sarien irabazleak aipatzen dira azke-neko zenbakian.

Kontu zaharrak eta kontu berriak. Hamasei orrialdeko liburuxka honek kolorezko apain-durez hornitutako euskal ipuinak nahiz atze-rrikoak zekartzan, baina ez zuen jarraipenik izan 1961ean atera zen estreinako aleak. Herri ipuin landuen bildumatxoa izan nahi zuen eta gairik bazegoen baimen arazorik bidean sortu ez balitz. Betikoa.

Gu Batxiller Euskaldunok izenarekin 1963an plazaratu zuen aldizkari berriak ikasle gaztee-kin harremanak zainduz, umee-kin hasitako lanari jarraipena eman nahi zion. Txikien aldiz-kari haren legezko baimenaz baliaturik, egitu-ra bereko hamasei orrialde zituen, eta helbu-ruen azalpen zehatza da bere izenburu luzea: «Gu Batxiller Euskaldunok / Ere gure-gurea




Euskal kontuak eta Kontu zaharrak eta kontu berriak

Galdekizunak. Eskura zituen helbideak baliatuz, 13-16 urte bitarteko gazteekin inkestak egin zituen. Bi galdera multzok osatzen zuten helburua: zortzi puntukoa bat euskaldunentzat, eta bost galdera zituen besteak. Hogeita sei erantzunekin borobildu zuen lehen bilduma eta gogo handiz hartu zuen lehenbailehen argitaratzeko ardura. Ignazio Larrañaga Lasa, Pinglian-go apezpiku kaputxinoari eskatu zion hitzaurrea eta 1965eko apirilaren 17ko datarekin sinatu zuen hark bi orrialdeko izkribua. Ez zuen agintariengandik baimenik lortu, eta horrela jakinarazi zien lankide gazteei izkribu

Geure hizkuntzaren une hartako egoera nola ikusten zuen galdetzean, hau zioen:

a) Geure haurrekin buru-belarri lanean ari direnak. Ez dute hauek lan arina. Iraupena eta bihotz handia behar da honetarako. b) Ezer egiten ez duten euskaltzale negarti alperrak, eta c) Beren ezaguera ere galdu duten euskaldun gehienak. Banaketa hau gogortxoak idurituko zaie zenbaiti, baina benetan aztertzen badute, honela gaudela ikusiko du edozeinek.



Askotan izan ohi ziren debeku horietako baten berri

Beste behin honela idatzi zuen euskaldun ustetsuei buruz: «Euskara erdaraz goraipatzea baino, euskaraz hitz egitea hobe».

Inoren jokabidea ez da ongi ulertzen ez bada aurretik bere pentsabidea argitzen, eta aita Murietak helburu argiak zituen euskararen etorkizuna haur eta gazteen baitan zegoela esatean. Filosofia horren ildotik borrokatzen ahalegindu zen bizi guztian itxura apaleko ekintza handien sortzaile eta sustatzaile bizkorra. Arkatz txikien aitzurrez landu zuen idazletxoan lorategia, eta eskua goldean zuela eman zuen azken arnasa euskararen arloan.

Ez zuen jarraipenik izan *Umeen Deiak*, eta horixe izan zen berak mundutik eramandako arantza. Hil aurrean aitortu zuen, pausu batzuk emana zela bere jarraitzaileak bilatzeko asmotan, Madril aldera baimenak eskatu ere bai, baina bide luzeak izaki, beldur zen bideetan ez ote zen galduko dena. Lehenago idatzia zuen *Aránzazu* aldizkarian susmo hau: «Sagarraren lorak bezelatsu izaten dira maiz gure lanak. Isilik etorri, isilik frutua eman, eta isil-isilik joaten zaizkigula gehienera, inortxok ez die eskerrik ematen, gainera. Ostikoka botatzen ez badituzte, gaitz erdi».



Eguberri on, Jesusen Jaiotzaren irudiarekin

Euskaltzain urgazle

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1961eko azaroaren 24an, Mariano Izeta eta Frantzisko Tirapu nafarrekin batean.

Aita Felipe Murietakoa eta gerra osteko euskaltzaleen izaera eta jokabidea ez dira bakar-ka aztertzeak. Egoera bereziko pertsonak dira. Ehun urte aurretik hasia zen eurek jasotako lekukoaren historia Nafarroako euskararen pizkunde lanetan. Hemeretzigarren mendearen azken herena Iturralde Suit, Campion eta beste dozena bat lagunenei *Nafarroaco Euscarazco Elcargos* astindu zuen euskararen aldeko haize berriekin, hiriburuko bultzadaz herri hizkuntza zaharrari prestigioa emanez. *Euskeraren Adiskideak* izeneko elkar-reak hartu zuen gerra ostean haien lekukoa euskal festak herriz herri antolatu eta haur euskaldunei sariak banatuz. Orduan sortu zen Iruñean lehenbiziko haurren euskal eskola.



Jose Mari Satrustegi Frantzisko Torres Ibañez-i buruzko lana prestatzen ari da (2003-01-20)

Zoritxarrez 1936ko gertakizunek eten zuten euskal giro hura eta XX. mendeko bigarren erdialdera etorri zen gerra aurreko ekintzen jarraipena.

Urteak joan eta egoera aldatu arren, erromantiko berantiarren kutsua zerion Murietaren garaiko euskaltzale taldeari eta, nolabait, espiritu berdinen arnasak akuilatzen zituen hauen ekintza guztiak. Ez zen irabazpide eta onura materialik inon sumatzen. Alde horretatik etxekalte zen euskararekiko jardura. Orduak, lana, bidaia eta norberaren diru urria sartzen zituen abertzaleak hizkuntzaren bidea urratzen joateko, emandako urratsen poza edo porrota aintzat hartuta. Ameslarien gogo itxaropentsuak arotu zuen aurrekoek landutako lurra, eta hauen esku zabaletan gorpuztu zen ereindako hazia. Gaur egungo gizaldi honi dagokio, neke guztien ondoren, Iruñetik Tuterara sortutako ikastola eta barnetegi guztien loratze ikusgarria zaintzea. Epe luzeko eta langile askoren lana izan da Nafarroan euskararen pizkunde bizkorra, azken orduko etsai ofizialen kezkarri.

Gerra ostean argi printzez gau beltza sustatu zuten gizon baliotsuen izartegi distiratsua goibel ager liteke Felipe Murietakoaren umore biziko zirtadak eta bere begi zorrotzen begirada gardena aipatu gabe. «Orain hamabost urte norbaitek esan balu gure umetxoek hileroko bat aterako zutela, ez zuen inork sinistuko», zioen berak. Aita san

Frantziskoren loretxoak bezala ziren fraide apalarentzat haurtxoak, eta paper xume haietan idazten hasi ziren haurrak, hala nola beraien ume eta ilobak dira gaur, euskaraz idazteko tradizioz ez zegoen Hegoaldean, bigarren eta hirugarren gizaldiko euskal idazleak. Gaztetxoaren literatura lehiaketa askoren aurrelaria izan zen maila desberdineko ikasle-goan.

Larrañaga apezpiku kaputxinoak bere adiskide maite Murieta idatzitako hitzekin utziko

dugu euskararen bidegile erraldoi honen oroigarri laburra. Honela zioen hark: «*Umeen Deia* orritxoetan euren izenak ikusi zituzten haurrek eta zure adiskidantza, harreman eta, argitalpenari esker, ama-hizkuntza gorde ala berreskuratu zuten gazte horiek, ez da asmatzen zaila, euren bizi guztirako maitasun goxo eta esker ona darion oroitzapena izango dutela, betaurrekoen gainetik begiratu eta Estellerriko euskararen aztarnez ezitasun amultsuarekin mintzatzen zen bizar txuriaren fraideaz».



Eskuinetik, aita Murieta eta ezkerretik J. M. Satrustegi, fraide lagunekin



Zeruko Argia astekariak Murieta hil zenean idatzia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- Jose Mari Satrustegi
- Auñamendi entziklopedia
- Bidegileak bilduma
- Enciclopedia histórico-geográfica de Navarra. Haranburu editor, S.A.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1973-4 (Lan osoarena)
84-457-1974-2

L.G.: S-797-2003